

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernua memoria historikoaren lehenengo sei tokiak onartzen hasi da

*Hauek dira sei toki horiek: Sartagudako Memoriaren Parkea, Otsoportilloko leizea, Olabeko hobia, Igari eta Bidankoze arteko errepidea, Erreniegako hobietako memoriala eta emakumearen errepresioaren memoriarako Azkoieneren dagoen eskultura*

Ostirala, 2019.eko martxoak 1

Nafarroako Gobernuak Memoria Historikoaren Tokien Erregistroan inskribatu ditu, behin-behinean, Nafarroako memoria historikoaren lehenengo sei tokiak. Horren bidez, abian jarri da toki horiek behin betiko onartzeko prozedura, Nafarroako Gobernuak hala erabakita. Hauek dira sei toki horiek: Sartagudako Memoriaren



Sartagudako Memoriaren Parkea

Parkea, Otsoportilloko leizea, Olabeko hobia, Igari eta Bidankoze arteko errepidea, Erreniegako hobietako memoriala eta emakumearen errepresioaren memoriarako Azkoieneren dagoen eskultura. Sei toki horiek 2017ko azaroan onartu zen memoriaren tokien behin-behineko inbentarioan daude, baita Koordinazio Batzorde Teknikoak otsailaren 1eko bilkuran memoria historikoaren arloan lehentasunezkoztat jo zituen hamar tokien zerrendan ere.

Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiei buruzko 29/2018 Foru Legeak ezartzen duen prozedurari jarraikiz, Nafarroako memoria historikoaren toki deklaratu dira, behin-behinean, toki horiek, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak eman dituen eta gaur Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Gobernu Irekiaren Atarian argitaratu diren hainbat ebazpenen bidez.

Prozedura horren bidez, toki horiek legearen babesean geratzen dira behin-behinean, behin betiko izapidetze-prozesua amaitu bitartean, Nafarroako Memoria Historikoaren Tokien Erregistroan behin betiko inskribatuko dituen Gobernuaren Erabakiaren bidez.

Horretaz gain, Nafarroako Gobernuak lanean darrai Batzordeak lehentasunezkoztat jotako memoriaren gainerako tokiak inskribatzen.

Toki hauek inskribatu dira Erregistroan:

**Sartagudako Memoriaren Parkea.** Elkarte memorialistek eta Sartagudako Udalak eraiki zuten parkea duela 10 urte, eta, denboraldi

horretan, biktimen oroimenaren eta memoriaren sinbolo bihurtu da.

**Otsoportilloko leizea** (Urbasako mendilerroa). Nahiz eta oraindik ez jakin zehazki zenbat, gutxienez hamalau biktima ehortzi ziren bertan; hamaika pertsonaren gorpuzkiak berreskuratu dira. Zenbait eraso ere jasan ditu.

**Olabeko hobia**. 1938an Ezkabatik ihes egin zutenak ehorzteko hobirik handiena (16 biktima). Nafarroaren mugak gainditzen ditu, presoan artean penintsulako beste toki batzuetako pertsonak ere bai baitzeuden.

**Igari eta Bidankoze arteko errepidea**. Frankismoak presoak herri-lanak egitera behartu zituela agerian uzten duen tokietako bat.

**Erreniegako hobietako memoriala**. Elkarte memorialistek eraiki zuten eta 36ko biktimen memoriaren eta erreparazioaren toki sinbolikoenetako bat da.

**Emakumearen errepresioaren memoriarako Azkoien dagoen eskultura**. Kolpe militarren ondoren eta diktadura frankistan zehar emakumeak jasan zuen errepresioa sinbolizatzen duen obra bat da.